

Ordizian, **2011ko irailaren 29an, UDALBATZA** elkartu da udaletxeko bilkura-aretoan **OHIKO** bilera egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre jauna.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Eduarne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	PNV taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	PNV taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	PNV taldea
Iñaki Bolinaga Alzelai jauna	PNV taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	PNV taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :


BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK



AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2011ko uztailaren 21ean ohiko deialdian egindako Batzordearen aktaren zirriborroa onartzea.
.....**3.orr.**
- 2.-Kreditu-transferentzien 12.espedientea onartzea.
.....**3.orr.**
- 3.- Urte anitzeko kredituak onartzea.
.....**3.orr.**
- 4.-2011ko LPZ eta Plantilla Organikoa aldatzea.
.....**3.orr.**

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

- 5.-Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeko EAJ/PNVko ordezkaria aldatzea.
- 6.- Majori Kiroldegiko langileei mailegua ematea.
- 7.- Izaro Insausti Zinkinegi zinegotziaren dedikazio osoa.
.....**9.orr.**

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK


- .- ARALAR alderdiko ordezkariaren esker ona BILDUri, osoko bilkuretan parte hartzeko gonbidapena egin dielako.
- .- Kiroldegiko egoerari buruzko informazio eskaera.
.....**9.orr.**

ORDUTEGIA:

HASIERA ORDUA: 19,00

BUKAERA ORDUA: 20,20





Alkate jn.

Aztertuko diren gaien aurkezpena euskaraz egingo duela azaldu du, baina norbaitek, zinegotziren batek nahiz bertaratutako edozeinek hala eskatzen badu, gazteleraz ere egingo dela.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2011ko uztailaren 21ean ohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2011ko uztailaren 21ean ohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.




Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako bigarren puntuaren berri eman du:

2.-Kreditu-transferentzien 12.espedientea onartzea.

Proposamena

622.434.11.01.2010 (Skate-Park) eta 622.452.22.01.2010 (frontoi txikia estaltzea) partiden kreditua osatu behar dela ikusita eta jasotako diru-laguntza osoa ez zurtzeagatik Sustapen Ministerioari 46.207,14 euro itzuli behar zaizkiola kontuan hartuta, Ogasun Delegazioan 2011ko Aurrekontuaren exekuzioa aztertu da eta beste behar batzuk aintzat hartuta (Oiangurengo belarra mozteko makina, "San Jose" Zaharren Egoitzarako mailegua) behin betiko espedientea egin da.



Jasota geratu behar du badaudela beste behar batzuk, eta ukitutako zerbitzuen barruko transferentzien bidez finantza daitezkeela baloratu da.

Espedientea irailaren 13ko Gobernu Batzordean aztertu da eta honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

2011eko Aurrekontuan kreditu-transferentzien 12.espedientea onartzea, guztira 238.162,14 euro, jarraian azaltzen diren xehetasunen arabera.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontu-hartzaile jaunak

Jakinarazi du, Osoko Bilkurarako Gaietan Batzordean (2011-09-11) Santamaria eta Dubreuil jaunek adierazi zutela ez zedela ados skate parkeko eta frontoi txikia estaltzeko obrak finantzatzeko behararekin, aipatutako obrek kreditua gaitzeko adinako baliabideak zituztela uste zutelako.

Gaia aztertuko zuela esan zuen eta gaur onartu behar den espedientea obra hauek aurrera eramateko beharrekola dela adierazteko moduan dago.

2010. urtetik aurrera jasotako betebeharrak eta diru-sarreraren azterketa bat egin du, eta obra hauetarako jaso behar diren diru-laguntzak 2011ko Aurrekontuan aurreikusita daudela jakinarazi du, eta beraz, ezin direla kontuan hartu aipatutako baliabideak.

Santamaria jna.

Adierazi du ez duela bat egiten informazio horrekin.

Kontu-hartzaile jaunak

Datuak hor daudela eta hitzez informazioa kontrastatzea zaila dela erantzun dio.


Alkate jn.

Puntuz puntu azaltzea nahi badute, hala egingo dela jakinarazi du.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)



Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako hirugarren puntuaren berri eman du:

3.- Urte anitzeko kredituak onartzea.

Proposamena

Kontu-hartzaileak 2011ko maiatzaren 16ko 482,483 eta 484 zenbakiko Dekretuen berri eman du, 2012 urteko gastuak onartu dira, horretarako eskumena osoko bilkurak duenean.

2011ko abuztuaren 14an jakinarazi zuen aldez aurretik bete behar zen baldintza zela gastua 2011 urtean hastea eta horretarako kreditua falta zenez, kreditu aldaketa bat onartuz konpondu da.

AKORDIO PROIEKTUA

2012 urterako urte anitzeko kredituak onartzea 227.451.10.04 partidan, 17.421,34 eurokoa.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontu-hartzaile jaunak

Urte anitzeko gastuen dekretu hauek 2012 urteko gastuak konprometitzen dituztela azaldu du, eta horregatik behar dela osoko bilkuraren erabakia.

Gainera, 2011ko ekitaldiko gastuak aurrekontu partida gainditzen zuen, eta azkeneko hau konpondu den arren, beharrezkoa da osoko bilkurak urte anitzeko kreditua onartzea.


Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (PNV 7, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 3 (EAJ/PNV 5)



Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako laugarren puntuaren berri eman du:

4.-2011 urteko LPZ eta Plantilla Organikoa aldatzea.

Proposamena

2011ko martxoaren 25eko osoko bilkuran 2011 ekitaldiko Udaleko Lanpostu Zerrenda eta Plantilla Organikoa onartu zen.

Kirol instalazioak eta kirol zerbitzuak kudeatzeko Aholkulari postua sortzea komeni dela kontuan izanda.

Tokiko Araubidean indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretuaren 126 artikulua eta ondorengoak kontuan izanda.

Toki Araubidearen oinarri orokorrak arautzen dituen Legearen 22.2i) artikulua zehazten du Langileen Plantilla, Lanpostuen Zerrenda eta horien aldaketa onartzea osoko bilkuraren eskumenekoa dela.

110.324.0001, 160.324.001, 110.111.0001 y 160.111.001 partidetan soberan kreditua dagoela kontuan izanda eta 2011ko irailaren 21eko osoko bilkurarako gaien batzordearen aldeko erabakiarekin honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

*** 2011 ekitaldirako Udalaren Lanpostu zerrenda eta Plantilla Organikoa aldatzea, aldi baterako "kirol instalazioak eta zerbitzuak kudeatzeko aholkulari" postua sortuz hileko 2.250 euroko soldata gordinarekin erantsitako eranskinaren arabera.**

*** Euskal Funtzio Publikoko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 16. artikulua eta apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretuaren 127. artikulua arabera GAO n argitaratzea honako akordioa.**


Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate in.

Alkate jaunak adierazi du Lanpostuen Zerrendak zenbait aldaketa (aldaketa asko Lanpostuen Balorazioen ondorioz sortutakoak) izango dituen arren, gaurko osoko bilkurara ekarri duela LPZren



aldaketa eta 2011ko Plantillaren aldaketa, aldaketa bakarrarekin, hau da, bitarteko izaera duen lanpostu bat sartzeko puntuarekin, Kirol Zerbitzu eta Instalazioen Aholkulari lanpostua, izendapen askeko sistema bidez izendatuko da bitarteko kargu hau.

Majori kiroldegia SLn gaur egun zerbitzuak eskaintzen eta kudeatzen dituen enpresaren hartzekodunen lehiaketak ekarri dituen arazoak aldaketa honen premia sortu duela azaldu du.

Hasiera batean, eta behin-behineko izaerarekin, Igeriketa Lantzen SL enpresarekin dagoen kontratua amaitzean, beste enpresa batek kudeatuko du zerbitzua, epe horretan zehar zerbitzuaren kudeaketari buruzko hausnarketa egingo da eta erakunde publikoaren azpiegitura eta funtzionamendua aztertuko da.

Lan hauek burutuko ditu hain zuzen ere kirol instalazio nahiz zerbitzuetako Aholkulariak, Majori Kiroldegia SLko azpiegitura berria diseinatzea eta martxan ipintzea, eta horrekin batera kirol zerbitzua kudeatzeko modua hobetzea.

Gutxi gorabehera sei hilabeteko epean egingo dela jakinarazi du.

Postuaren ezaugarriak proposamenaren eranskinean jasota daude eta oinarrizkoa hau da: Enpresaritza lizentziatu titulua eta 3. hizkuntza eskakizuna.

Santamaria jna.

Majori Kiroldegia Elkarteko langileen funtzioak zehaztuta dauden galdetu du, eta nola txertatuko diren langile hauek enpresa berriaren azpiegitura eta plantillan.

Alkate jn.

Oraindik gaia aztertzen eta lantzen ari direla erantzun dio. Oraindik harrerakoen gaia argitu eta zehaztu behar dela esan du, gaur egun elkarteko langile batengan eragina baitu.

Dubreuil jn.


Lanpostua sortzeko trabarik ez duela ipintzen, hori esan du.
Eduki daitekeen eta behar den legezko figura bat dela uste du, baina aurreko kasu batzuetan, beste gobernu batzuekin, horrelako izendapenak egin izan direnean gaia testuingurutik atera nahi izan dela gogorazi nahi du.

Ez daki zein funtzio izango dituen gaur egungo kirol teknikariak.

Postuetako funtzioak ondo definitu beharko lirakeela uste du.

Kargu berriari ordaintzeko zein aurrekontu partida egongo den galdetu du era berean.

Dubreuil jaunak jakinarazi du abstenitu egingo dela.



Alkate jn.

Informazioa berandu iritsi delako barkamena eskatu du baina Majoriko gaiak politikariei nahiz teknikariei denbora asko kendu die, eta horrek ekarri du osoko bilkura prestatzeko denbora gutxi izatea eta zenbait arazo sortzea.

Funtzioei dagokienez, Dubreuil jaunari erantzun dio esanez bere ustez ongi zehaztuta daudela, kargu berria instalazioen azpiegitura eta funtzionamenduari buruzko aholkularitza emateko sortu da, eta gaur egungo kirol teknikariak gaur egun arte izan dituen funtzioekin jarraituko du.

Kontu-hartzaile jaunak

Dubreuil jaunari azaldu dio, aurrekontu partida aurreko legealdian zeuden aldi baterako bi karguen soberakinekin estaliko dela, postu horiek gaur egun hutsik baitaude eta desagertu egingo baitira. Beraz, nahiko kreditu dago 1. Kapitulan.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.

Santamaria jna.

Adierazi du eguneko gai zerrendan EAJ-PNV taldeko zinegotzia aldatzeko proposamena ez dela azaltzen, eta bere taldeak proposatu zuela puntu hori Gai Arrunten Batzordean.


Idazkari andreak

Erantzun dio esanez proposamen hau 2011ko irailaren 21eko osoko bilkurarako Gaien Batzordean aztertu zela eta aldeko irizpena izan zuela, eta ez dela eguneko gai zerrendan sartu.

Proposamena, Gai Arrunten Batzordeko kide gisa Judith Otegi Lopez de Murillas andrea Arantzazu Garin Garmendiaren ordezkari izendatzean datza.

Proposamena onartu da.





5.- Gai Arrunten Batzordeko EAJ/PNVko kidea ordezkatzea.

Proposamena

2011ko ekainaren 30eko ez-ohiko bilkura kontuan izanda, bertan izendatu ziren Gai Arrunten Batzordeko alderdi politikoetako ordezkariak.

Kontuan izanda Judith Otegi Lopez de Murillas zinegotziak Batzorde horietara joateko zailtasunak dituela, EAJ-PNV taldeak aldaketa proposatzen du eta Arantzazu Garin Garmendia izendatzea Batzorde horretako kide.

2011ko irailaren 21eko Plenorako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako honen proposamena egiten da

AKORDIO PROIEKTUA

- **Arantzazu Garin Garmendia andrea Gai Arrunten Batzordeko kide izendatzea Judith Otegi Lopez de Murillasen ordezkari.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5., PSE-EE(PSOE) 1)


Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Alkate jaunak gai zerrendako seigarren puntuaren berri eman du.



6.- Zinegotzi karguaren dedikazio eskusiboa.

Proposamena

Udaletako Antolakuntza eta Funtzionamenduaren Araudiko 13.4 artikulua eta TAOLren 75 artikulua kontuan hartuta, Udalbatzako kideak kargu politikoan dedikazio eskusiboz jarduteko izendapenari buruzkoa dena.

Kontuan izanik Izero Intsausti Zinkunegik zinegotzi kargua hartu zuela 2011ko ekainaren 11n.

Kontuan izanik komunikazio, koordinazio eta aholku lanetarako dedikazio eskusiboa behar dela.

110.324.0001, 160.324.001, 110.111.0001 y 160.111.001 partidetan kreditu soberakinak daudela kontuan izanik, Alkatetza honek honakoa proposatzen du:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Udal honetako zinegotzi den Izero Intsausti Zinkunegi andrearen dedikazio eskusiboa aitortzea, komunikazio, koordinazio eta aholkularitza ekonomikoko lanetarako, eta hileko 2.250 euroko ordainsari gordinarekin. Dedikazio eskusibo hau indarrean izango da 2011ko urriaren 1etik aurrera.

2.- Intsausti Zinkunegi andrea ohartarazi behar da zehaztutako dedikazio eskusiboan karguari dagozkion lanak lehenetsi beharko dituela, bestelako zeregin txiki batzuei kalterik egin gabe, baina nolana ere, lan txiki hauek ez dute kaltetuko Udalean duen bere lana.

3.-Adierazi behar da dedikazio eskusiboa duen Udaleko kide gisa, ez duela beste kideek jasotzen dituzten ordainsariak jasoko kide anitzeko organoetako bileretara joateagatik.

4.- Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrean afiliatzeko eta alta emateko eskaera egiteko agintzea, eta Udalak beteko ditu Gizarte Segurantzak enpresentzako ezartzen dituen Erregimen Orokorreko arauetako eginkizunak, bere zerbitzupeko langileekiko arauak.


5.- Adierazi behar da dedikazio eskusiboan aritzeko kide bat izendatzean, kide horrek berariaz onartu behar duela kargua eta onarpen hori Osoko Bilkuran jakinarazi beharko dela.

6.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko Iragarki Oholean argitaratzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:



Alkate jn.

Insausti andreari dedikazio eskusiboa zertarako aitortzen zaion azaldu du. Komunikazio, koordinazio eta aholkularitza ekonomikoa bideratzeko lanak izango dira.

Dubreuil jn.

Ez du oso ondo ulertzen aholkularitza ekonomikoko lanek zer esan nahi duten, eta zertarako diren. Komunikazio eta koordinazio lanak bai.

Udalaren aholkularitza ekonomikorako lanak Kontu-hartzaileari dagozkiola uste du.

Alkate jn.

Beharbada ez du ongi azaldu, baina aholkularitza ekonomikoa ez da benetan aholkularitza tekniko bat izango, Kontu-hartzaileari egokitzen baitzaio lan hori. Ogasun Delegazioko zinegotzi bezala, Udaleko sailen ekonomia egoeraren jarraipen eta koordinazio lanak egingo ditu.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.




Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.- Majori Kiroldegiko langileei mailegua ematea.

Proposamena

Kirol instalazioen kudeaketa eta esplotazioaren esleipena zuen Igeriketa Lantzen SL enpresa hartzekodunen lehiaketan dagoen adierazpena ikusita,

Kontuan hartuta adierazpen horren ondorioz enpresako langileek 3 hilabetetan egindako lanari dagokion soldata ez dutela kobratu.



Kontuan hartuta Majori Kiroldegia SLk Igeriketa Lantzen SL enpresarekin duen kontratua amaitzeko espedienteari hasiera eman diola.

Kontuan izanda zerbitzua ematen jarraitzeko beharra, eta horretarako egoera legeztatzen den bitartean kiroldegiko langileak bertan jarraitzea beharrezkoa dela, eta beraiei eragiten dien egoera konpontzea beharrezkoa dela ikusita.

Kontuan izanda horretarako ez dagoela aurrekontu krediturik.

Honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

*** 90.000 euroko kreditua gaitzeko espedientea onartzea 833.452.20.02 partidari (epe luzerako maileguak ematea) epe luzerako maileguen itzuleraren 833.02. kontzeptuarekin.**

*** Interesik gabeko mailegua ematea onartzea, gehienez ordainsari handiena duen langilearentzako 3.000 euroekin eta proportzioan kiroldegiko gainerako langileentzako, itzultzeko ondorengo baldintzekin:**

- **3.000 euro jasotzen dituen langilearentzako 150 euro/hileko itzulketa eta proportziozko zenbatekoa gainerako langileentzako 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera.**
- **Langileak nahi duenean amortizatu ahal izango du aipatutako mailegua.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:
Alkate jn.

Kreditu hau ematearen arrazoia gaur egungo langileek bertan jarraitzea dela azaldu du eta horiek duten egoera ekonomikoa leuntzea, 3 hilabete baitaramate kobratu gabe.


90.000 €ko kreditu bat bideratuko dela jakinarazi du. Interesik gabeko kreditu bat banatuko zaie.

Proportzio bat bilatu nahi izan da langile bakoitzari eman dakiokiena (egoera eta kontratu mota desberdinak daude) eta eman beharreko kreditua kontuan hartuta.

Kontratua amaitzeko prozedura laster amaituko dela jakinarazi du, egun batzuen buruan, esleipendun enpresak aurkakorik esaten ez badu behintzat.

Dubreuil jn.

Enpresak langileekiko zein zor duen galdetu du. 90.000 € zenbat da benetan enpresak zor duenarekin alderatuta?



Alkate jn.

Azaltzea zaila dela esan du baina batuketa 75.000 €-80.000 € bitartekoa dela erantzun dio. Kasu eta kontratu mota ugari dago, eta funtzio berak eta lanaldi bera duten langileen artean ere aldeak daudela jakinarazi du. Aztertuko dute.

Dubreuil jn.

Horren berririk ez duela azaldu du, baina soldatak osorik kobratu dituzten lauzpabost langile daudela entzun du.

Hori argitzeko eskatu du eta 3.000 €ko mailegua ordainsari handiena daukanarentzat izan dadila eta proportzionalki gainerako langileentzat.

Alkate jn.

Horrelako ezeren berri ez duela adierazi du, baina ez litzatekeela harrituko hala ere.

Santamaria jna.

Bere taldeari egokia eta ulergarria iruditzen zaio kreditua ematea.

Dubreuil jn.

Langileek informazio hori duten galdetu du.

Alkate jn.

Erantzun dio esanez langileen ordezkariak badutela behintzat informazio hori eta une hauetan langile guztiek honen berri izatea espero eta uste duela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5., PSE-EE(PSOE) 1)


Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



8.-Galde-eskeak.

Mikel Leunda jaunak jende artetik hitza hartu du, eta lehenik eta behin gobernu talde berria zoriondu nahi izan du osoko bilkuran parte hartzeko eta joateko gonbidapena bidali diotelako, nahiz eta alderdi politikoak ez izan ordezkartzarik Udalean.

Hasiera ona dela uste du eta partaidetza sustatzeko prestutasuna erakutsi dutela iruditzen zaio.

.....

Eskerrak eman ondoren, Leunda jaunak Alkate jaunari galdetu dio, Majoriko kontuen inguruan, zergatik hartuko duen berriro kudeaketa-lana hirugarrengo enpresa batek eta zergatik ez zaien Elkarte Publikoko langileei eman dagozkion bide legeetatik abiatuta.

Alkate jaunak erantzun dio esanez formula desberdinak aztertzen aritu direla, baina kontsulta ugari egin ondoren, hartuko den formula dela argiena.

Gainera, langileak elkartean sartzeak dakarren gastua oso altua izango da.

Leunda jaunak adierazi dio berak ez dituela lege-gaiak menperatzen, baina uste du, lehiaketa-oposizio publiko bidez langileak sar daitezkeela elkarteko plantillan eta horrela, langileak kontratatzean "entxufismoa" eta "lagun-kontuak" saihestuko lirakeela, eta ez enpresa esleipendunekin bezala, horrela ez dela langilerik sobrogatuko etengabe hautaketetan esfortzurik egin gabe.

Elkarteko langileek finkoak izan behar dutela uste du, eta postua irabazi behar dutela hautaketa sistemen bitartez, iragarki, berdintasun, meritu eta gaitasun irizpideak aintzat hartuta.

Alkate jaunak zerbitzua eskaintzeko modurik egokiena aztertuko duela jakinarazi du, eta horretarako proposamenari buruzko hausnarketa egingo dutela.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.